

Euskal hedabideak itun bila

Bilbon, 2017ko otsailaren 22an

Kronika

Hekimen-ek eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatu zuten jardunaldia. Euskal hedabideen elkarlana bideratzeko xedearekin sortu zen Hekimen (Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen Elkarte), 2012an. Baina ez horretarako bakarrik, euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatibo sendoa garatzeko asmoa ere aitortu baitzuten hasiera-hasieratik.

Jardunaldian parte hartu zuten Estibalitz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak; Alberto Barandiaran Hekimeneko zuzendariak; Jone Goirigolzarri eta Xabier Landabidea Deustuko Unibertsitateko irakasleek; eta Libe Mimenza Euskal Hedabideen Behategiko kideak.

Herritarrek informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidea ziurtatu ahal izateko, posible ote da hedabide eta administrazioaren arteko itun zabal bat? Galdera horri erantzuten saiatu ziren gonbidatu guztiak eta, bide batez, euskaraz jarduten duten hedabideen egoera azaltzen.

Andres Urrutia euskaltzainburuak egin zien harrera Akademiaren Bilboko egoitzara hurbildu ziren kazetari, politikari, euskaltzain eta irakasleei. “Guretzat azpimarratzekoa da Hekimen-ekin batera antolatu dugun jardunaldi hau, Akademiaren badakigulako komunikabideen sektorea estrategikoa dela euskalgintzan, horren bitartez gizarteratzen baitira interesatzen zaizkigun gai eta kezka ugari; beraz, funtsezkoak dira euskal gizartea bera kohesionatzeko”.

Urrutiak gogoratu zuen, baita, Akademiaren sorreran orduko hedabideek izan zuten parte-hartzea: “Ehun urte beteko ditugu laster, eta nabarmendu behar dut Euskaltzaindiaren sorreran komunikabideek berebiziko garrantzia izan zutela, bai Akademia abiarazteko orduan, bai euskalgintzaren presentzia bermatzerakoan. Gaur egun ere, euskararentzako eta euskal kulturarentzako hil ala biziko elementuak dira euskal hedabideak, euskalgintza sendo bat eraikitzeko tresna ezinbestekoak”.

Estibalitz Alkortak onartu zuen euskal hedabideek paper garrantzitsua betetzen dutela gure hizkuntzaren normalizazioan, eta aitortu zuen Gobernu berrian bada-goela euskal hedabideen etorkizunari buruzko “kezka eta ardura”. Badagoela “giro bat”, Hekimen elkartearen eta administrazioaren arteko hartu-emana “zuzena eta hurbila” dela, eta etorkizunean elkarrekin eman beharreko urratsa “publikoa eta pribatua” izan behar duela adierazi zuen. Halaber, gogoratu zuen euskal hedabideen sektoreak konpetitiboa izan behar duela, eta irabazi behar duela “merkatua, bere autonomia mantenduz”.

Euskaraz jarduten duten hedabideen erradiografia egin zuen Libe Mimenza Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzaileak, datu argigarriak -eta lagungarriak- azaleratuz. Guztira, 215 “komunikazio produktu” ekoizten dira Euskal Herrian (tokikoak, 146; tematikoak, 49; nazionalak, 16; lurraldekoak, 4), 530 zuzeneko lanpostu ziurtatuz; horrez gain, 600 kolaboratzaile inguru dituzte euskal komunikabideek, eta mila boluntariorik gora. Bere hitzaldia argitaratuko da *Euskera* 2017, 2 ikerketa zenbakian, artikulua akademiko gisa.

Hekimenek bilatzen duen itunaren nondik norakoak argitzeko, beste ikuspuntu batzuk ere agertu ziren: Jose Luis Sukia Ikastolen Elkarteko zuzendariak Hezkuntzari lotutako itunak azaldu zituen; Iñaki Urquijo Bizkaiko AEK-ko ordezkariak administrazioarekin AEK-k dituen akordioei buruz hitz egin zuen; eta Titto Betbeder Euskal Irratiak-eko koordinatzaileak Frantziako estatuaren eredia esplikatzen zuen. Halaber, Jone Goirigolzarri eta Xabier Landabidea Deustuko Unibertsitateko irakasleak gonbidatu zituen Hekimenek saiora. Biek azpimarratu zuten euskal hedabideek XXI. mendean duten garrantzia estrategikoa, eta etorkizunean aurre egin beharreko arazo eta erronkak identifikatzen saiatu ziren. Beraiek esandakoak *Euskera* 2017, 2 ikerketa zenbakian jasoko dira, artikulua akademiko gisa.

Alberto Barandiaran Hekimeneko zuzendariak zarratu zuen mintegia. Barandiaranek aitortza eskatu zion administrazioari, eta, ostean, ituna. Sektorea identifikatzeko eta garatzeko azken urteotan egon diren zailtasunak aletu zituen, baita euskal hedabideen indarguneak azpimarratu ere. Babes “iraunkorra eta adostua” eskatu zion Jaurlaritzari kazetariak, merkatuak berak ezartzen duen hedabideen arteko desoreka orekatzeko, pluraltasunaren mesedetan, “Europako zenbait herrialdetan egiten den bezala”.